BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Bermeoko Udala

**Zeregin askotarako ofizialen lan-poltsa eratzeko deialdia arautzen duten oinarriak.**

**Lehena.—*Deialdiaren xedea***

Deialdi honen xedea da Bermeoko Udaleko zeregin askotarako ofizialen lan-poltsa eratzea lehiaketa-oposizio librearen bidez.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 10. artikuluak xedatutako inguruabarrak emanda, eta zerbitzuaren beharrizanak aldi baterako edo bitartekotasunean betetzeko eratuko da lan-poltsa hau. Hautaketa prozesuan lortutako azken puntuazioaren araberako hurrenkera izango du lan-poltsa honek eta horretarako onartutako udal araudiaren bidez arautuko da.

Deialdi honen ondorioz sortutako lan-poltsa, Bermeoko Udaleko funtzionario izateko hautaketa prozesutik sortutakoaren osagarria izango da eta beste lan-poltsa bat osatu arterako indarraldia izango du.

**Bigarrena.—*Lanpostuaren ezaugarriak***

Administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezien azpi-eskalan, C2 sailkapen taldeari eta 12. mailari dagozkion ordainsari-maila dauka.

Lanpostuan bete beharreko zeregin nagusiak:

— Herriko mantentze lanak egin: arketak egin eta konpondu, seinaleak ipini, baldosak eta adokinak jarri edo/eta konpondu…

— Espaloiak berritu edo konpondu.

— Burdinak prestatu eta enkofratuak egin hormigoia botatzeko.

— Material desberdinetako hormak egin: hormigoizkoak, harrizkoak, blokezkoak, adreiluzkoak…

— Eraikin publiko guztietan igeltserotza lanak egin.

— Estolderiarako beharrezko hodiak ipini.

— Altuerako lanak egin: teilak ipini eta berritu, tela asfaltikoa ipini, kanaloiak garbitu…

— Bide eta herri lan taldeko eginbehar orokorretan parte hartu eta lagundu:

- Jaietako eszenatokiak eta azpiegiturak muntatu.
- Gabonetako argiak jartzen lagundu.
- Auzoetako bideak garbitu (belar eta sasiak ebaki).
- Pintadak kendu.
- Hainbat motatako makinaria erabili.
- Ibilgailuak gidatu (B gida baimena).
- Itsasontziak behar dituen lanak egiten laguntza eman.
- Margotze lanak egin.

— Norberaren eta berarekin lanean dauden peoien lanari dagozkion segurtasun neurriak hartu eta zaindu.

— Lanpostuaren kualifikazioaz bat etorrita agintzen zaion beste edozein eginkizun.

**Hirugarrena.—*Izangaiek bete beharreko baldintzak***

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko Itunei jarrai-

eek: BAO-2019a184-(II-3579)

ki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

2. 18 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.

3. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 6. Xedapen gehigarrian eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikuluan xedatutakoaren arabera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Eskola Graduatua, erdi mailako Lanbide Heziketa edo indarrean dagoen legedian parekotzat hartutako titulua izatea eskatzen da.

4. Gida baimena izatea (B).

5. Deitutako lanpostuaren hizkuntza eskakizuna 1.a da.

Baldintza hau euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzen dituen Dekretuan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko 64/2008 Dekretua aldatzen duen 48/2009 Dekretuko 1. artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da.

Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsiko dira.

6. Tasak: Bermeoko Udalaren Osoko Bilkurak onartutako 2019. urterako ordenantza fiskalak ezarritako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

7. Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Baldintza hori betetzen dela udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du, aurretik komenigarri jotzen dituen azterketak eginda.

8. Diziplinako espediente bidez edozein Administrazio Publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetan aritzeko.

**Laugarrena.—*Aukeratze sistema***

Lehiaketa-oposizioa.

**Bosgarrena.—*Eskariak aurkezteko epea***

Aukeratze prozesuan parte hartzeko eskaera-orriak aurkezteko epea 10 lanegunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuta.

Deialdi honetan parte hartzeko, eskaera orriaren eredu normalizatua erabili beharko da eta Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean (Berh@z bulegoa) aurkeztu beharko dute interesatuek edo Herri Administrazioen Prozedura Orokorra arautzen duen 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan araututako bideren bat erabiliz.

Hautagaiek eskaera-orriaren atal guztiak bete behar dituzte eta aditzera eman beharko dute parte hartzeko eskakizun guzti- guztiak betetzen dituztela.

Eskaera-orriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharra egongo da:

— Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko eskatu den tituluaren fotokopia.

— Eskatutako hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria.

— Aukeratze prozesurako, aurkezten diren merituen zerrenda (oposizio aldia gainditu duten hautagaiek bost (5) egun baliodunek o epea izango dute eskaera-orrian aipatu dituzten merituen egiaztagiriak aurkezteko).

eek: BAO-2019a184-(II-3579)

Ezin izango da baloratu eskaera-orriak aurkezteko epe barruan adierazi eta egiaztatu ez den meritua, ezta epe barruan adierazi arren, ondoren egiaztatu ez dena. Ezin izango dira, halaber, dagokion hautaketa-prozesuan eskatu ez diren merituak baloratu.

**Seigarrena.—*Hautagaien onarpena***

Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu ostean, hilabeteko epe barruan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onartuko ditu alkate-udalburuak edo eskumena duen organoak. Erabaki hori udaletxeko iragarki taulan eta webgunean argitaratuko da. Zerrendan bazter utzi diren hautagaiek, 10 eguneko epea izango dute, erabaki horren aurkako erreklamazioa egin ahal izateko edo eskatutako agiriak aurkeztu edo ikusitako akatsak zuzentzeko.

**Zazpigarrena.—*Epaimahai kalifikatzailea***

Hautaketa-prozesuko epaimahaia xedapen hauetako artikuluetan ezarritakoaren arabera eratuko da: Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuko 4. artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 31. artikulua, abenduaren 16ko 57/2003 Legean berridatzitako apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 127.1.h artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarreko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 20.4.b. artikulua.

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren araberako kideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egongo dira.

Epaimahaia osatuko dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbait gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, besteak beste, oposizio fasean aurreikusten diren ariketen hurrenkera. Epaimahaiaren erabakien aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Halaber, aplikagarri izango dira Bermeoko Udaleko plazak betetzeko deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

**Zortzigarrena.—*Aukeraketa prozesua***

*Oposizio Aldia*

Hautaketa prozesuaren lehen aldia oposizioa izango da.

Lehen ariketa (nahitaezkoa eta baztertzekoa). Epaimahaiak zehaztutako denboran, I. eranskinean agertzen diren gaiei buruzko aukera anitzeko 30 galderari erantzun beharko zaie.

Ariketa hau 0tik 30 puntura bitartean baloratuko da. Epaimahaiak, ariketa-egileen izenak jakin aurretik zehaztuko du proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa. Puntuazio hori lortzen ez duen izangaia kanpoan geratuko da.

Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzekoa). Ariketa praktikoa. Izangaiek lanpostuen zereginekin lotutako ariketa praktiko bat edo gehiago egin beharko dituzte, I. eranskinean zehaztutako gaiei dagozkienak.

Ariketa hau 0tik 50 puntura bitartean baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortzen ez dutenak kanpoan geratuko dira.

eek: BAO-2019a184-(II-3579)

*Lehiaketa Aldia*

Oposizio aldia gainditu duten hautagaiek bost (5) egun baliodunen epea izango dute eskaera-orrian aipatu dituzten merituen egiaztagiriak aurkezteko. Bost eguneko epe horretan eskatutako agiriak aurkezten ez badira, hautagaiak uko egiten duela ulertuko da.

Izangaiek egiaztatu dituzten merituak aztertu eta baloratuko dira, jarraian azaltzen den baremoan ezarritakoaren arabera:

1. Lan esperientzia:

— Administrazio Publikoan ofizial lanpostuan (C2 taldean) egindako zerbitzuak: 0,5 puntu hileko, (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira), 18 puntu gehienez. Hilaren zatikiak ez dira baloratuko.

— Enpresa pribatuan ofizial lanpostuan (8 kotizazio taldea) egindako zerbitzuak: (%100 lanaldian, bestelakoak proportzionalki baloratuko dira): 0,25 puntu hileko, 9 puntu gehienez. Hilaren zatikiak ez dira baloratuko.

Lehiaketa fase honetan, gehienez ere, 27 puntu jasoko dira.

Lehiaketa-aldian, izangaiek, eskabidearekin batera, merezimenduen zerrenda eta horiek egiaztatzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztuko dituzte oinarrietan adierazten den moduan eta epean. Eskabideak aurkezteko epearen barruan adierazi eta egiaztatu ez diren merezimenduak ezin izango dira inola ere balioetsi, ezta epearen barruan adierazi baina geroago egiaztatu direnak ere.

**Bederatzigarrena.—*Argitalpenak***

Oposizio-aldiko lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua, eta onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan eta http://www.bermeo.eus web gunean argitaratuko dira. Hori horrela da Herri Administrazioen Prozedura Orokorra arautzen duen 39/2015 Legeko 45.artikuluan ezarritakoaren arabera.

Oposizio-aldiko gainontzeko ariketen iragarkiak udaletxeko iragarki-taulan, http://www.bermeo.eus webgunean eta, beharrezkoa bada, probak egin diren lokaletan argitaratuko ditu epaimahaiak eta horren jakitun utziko ditu hautagaiak. Iragarkiak, gutxienez, probak egin baino 48 ordu lehenago argitaratuko dira.

**Hamargarrena.—*Gaindituko pertsonen zerrenda***

Behin ariketen kalifikazioa eta lan esperientziaren balorazioa bukatutakoan, hautaketa prozesuan jasotako puntuazioen batuketa egin eta behin betiko sailkapena ezarriko du epaimahaiak, puntuazioaren hurrenkeran; sailkapen hori korporazioko lehendakariari bidaliko dio, hark onar dezan lan-poltsa, eta izendapena proposa dezan, langile funtzionario bitarteko gisakoa. Horretarako, baina, deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatuta egon beharko dira aurretik.

Sailkapeneko behin betiko hurrenkera erabakitzeko batu egingo dira oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioak, eta gehiena duenetik gutxiena duenera ordenatuko dira. Hala bada, lanerako deiak puntuazio altuenak eskuratu dituztenei —prozesuko aldi guztiak kontuan hartzen direla— egingo zaizkie lehendabizi, ariketa guztiak gainditu badituzte.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarraren 6/1989 Legearen 27.2 artikuluarekin eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 20.4.a) artikuluarekin bat etorrita, gaitasun berbera duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago emakumeak direnean, eta gizonezkoei aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago gizonezkoak direnean. Salbuespena izango da beste hautagai batzuek lanposturako neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean —nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik—; kasurako, lanerateko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.

eek: BAO-2019a184-(II-3579)

Hala ere berdinketa apurtu ez bada, irizpide hauek erabiliko dira hurrenkera ezartzeko:

1. Ariketa praktikoan puntuaziorik handiena lortu duenari.
2. Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenari.
3. Azkenik, oinarri-arau berezietan zehaztutako merituetan puntuaziorik handiena lortu duenari, bertan adierazitako hurrenkeraren arabera.
4. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 20.4.a) artikuluarekin bat etorrita, gaitasun berbera duten kasuetan, emakumeei emango zaie lehentasuna aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago emakumeak direnean, eta gizonezkoei aurkeztutako guztien %40 baino gutxiago gizonezkoak direnean. Salbuespena izango da beste hautagai batzuek lanposturako neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituztenean —nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik—; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea.

Bermeon, 2019ko irailaren 18an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantauriense

eek: BAO-2019a184-(II-3579)

I. ERANSKINA

**Gai orokorrak**

1. Udalerria. Eskumenak. Udal antolaketa: Funtsezko oinarriak. Oinarrizko organoak: Alkatea, alkateordeak, Osoko Bilkura eta Gobernu batzordea. Organo osagarriak. Eskumenak. Udalbatzetako kideen estatutua.

2. Tokiko Funtzio Publikoa eta bere antolaketa. Enplegatu publikoen eskubide eta betebeharrak. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea. Administrazio egoerak. Erantzukizunak.

**Berariazko aztergaiak**

3. Igeltserotza lanak.

4. Iturgintza: kontzeptu orokorrak. Eraikinetan urak instalatzeari buruzko aipamen laburra. Tresnak eta lanabesak. Mantentzea. Matxurak eta konponketak.

5. Elektrizitateari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Instalazio elektrikoak. Argindarraren garraioa. Gidariak eta isolatzaileak. Kanalizazioak. Argindar lanetan erabilitako tresna eta lanabesak. Matxura motak eta eurok konpontzea. Argiteria instalazioak. Lotura instalazioak. Barruko instalazioak.

6. Arotzeria: Kontzeptu orokorrak. Arotzeriako oinarrizko tresna eta lanabesak. Arotzeriako oinarrizko teknikak. Egur motak. Mantentze lan eta konponketa ohikoenak. Egurrezko altzariak egitea eta zaintzea.

7. Sarrailagintza: gogoeta orokorrak. Sarrailagintzako oinarrizko lanak. Lanerako tresna eta lanabesak. Konponketak eta mantenua.

8. Eraikin eta lokalak margotzeari buruzko azalpen orokorrak. Margotu eta pintura kentzeko tresnak: garbitzea eta zaintzea. Ohiko errakuntzak eta konponketak.

9. Lorezaintza: kontzeptu orokorrak eta lorazainaren funtzioak. Landareak. Lorezaintzarako tresna erabilgarriak. Landareak zaintzeko teknika nagusiak. Landareen gaixotasunak.

**39/1997 Errege-Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio-Zerbitzuen Araudia onartzen duena (1997ko urtarrilaren 31ko BOE, 27. zenbakia)**

10. Prebentzioaren integrazioa (1. artikulua).

**Azaroaren 8ko 31/1995 Legea Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatutakoa**

11. Lan arriskuen aurrean babesteko eskubidea (14. artikulua).
12. Prebentzio-ekintzaren printzipioak. (15. artikulua).
13. Arrisku larria eta berehalakoa (21. artikulua).
14. Laneko arriskuak aurreikustean langileen betebeharra. (29. artikulua).
15. Prebentzio baliabideen presentzia (32 bis. artikulua).

eek: BAO-2019a184-(II-3579)

SECCIÓN II

ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

## Ayuntamiento de Bermeo

**Bases reguladoras para la convocatoria de bolsa de trabajo de oficiales polivalentes.**

**Primero.—*Objeto de la convocatoria***

El objeto de esta convocatoria es la constitución de una bolsa de trabajo de oficiales polivalentes para el Ayuntamiento de Bermeo mediante concurso-oposición libre.

Esta bolsa de trabajo se constituirá dándose las circunstancias dispuestas en el artículo 10 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público y a fin de cubrir las necesidades del servicio temporalmente o en interinidad. Esta bolsa de trabajo tendrá un orden de preferencia de acuerdo con la puntuación final obtenida en el proceso selectivo y estará regulada por la normativa municipal aprobada para tal efecto.

La bolsa de trabajo constituida por esta convocatoria será complementaria a la constituida por el proceso de selección para ser funcionario/a del Ayuntamiento de Bermeo y tendrá vigencia hasta la constitución de otra bolsa de trabajo.

**Segundo.—*Características del puesto de trabajo***

El nivel retributivo será el correspondiente a la escala de administración especial, sub-escala de servicios especiales, grupo C2 y nivel 12.

Principales tareas a cumplir en el puesto de trabajo:

— Llevar a cabo trabajos de mantenimiento en el municipio: construir y reparar arquetas, colocar señales, colocar y/ o reparar baldosas y adoquines…
— Reformar o arreglar aceras.
— Preparar hierros y elaborar encofrados para verter el hormigón.
— Construir paredes de distintos materiales: de hormigón, piedra, bloque, ladrillo…
— Realizar trabajos de albañilería en todos los edificios públicos.
— Colocar las tuberías necesarias para el alcantarillado.
— Realizar trabajos de altura: reformar y colocar tejas, colocar tela asfáltica, limpiar los canalones…
— Participar y ayudar en trabajos generales del grupo de vías y obras públicas:
  • Montar escenarios de fiestas e infraestructuras.
  • Ayudar en la colocación de las luces de Navidad.
  • Limpiar los caminos de los barrios (desbrozar).
  • Limpiar pintadas.
  • Utilizar maquinaria de diversos tipos.
  • Conducir vehículos (permiso de conducir B).
  • Ofrecer ayuda en los trabajos necesarios en el barco.
  • Realizar trabajos de pintura.
— Adoptar y supervisar las medidas de seguridad correspondientes a lo/as peones que estén trabajando con él/ella y de si mismo/a.
— Cualquier otra tarea que se le encomiende conforme a la cualificación del puesto de trabajo.

cve: BOB-2019a184-(II-3579)

**Tercero.—*Requisitos de las personas aspirantes***

1. Tener la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún estado al que, en virtud de la aplicación de los tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras. También podrán participar cónyuges de nacionales de los estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separado/as de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean éstos descendientes menores de veintiún años (21) o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.

2. Tener cumplidos los 18 años, sin perjuicio de los procesos en los que se pida cualquier otro límite especial de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.

3. Se exige la posesión de la titulación de graduado escolar concedida por el Ministerio de Educación y Ciencias, de grado medio de Formación Profesional u otro título equivalente según lo dispuesto en la 6.ª Disposición Adicional del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público y en el artículo 43 de la Ley 6/1989 de 6 de julio de la Función Pública Vasca.

4. Estar en posesión del permiso de conducción (B).

5. El perfil lingüístico de la plaza convocada es el 1.

Esta condición deberá ser acreditada mediante la presentación de certificados acreditativos del conocimiento de euskara establecidos en el artículo 1 del Decreto 48/2009 que modifica el Decreto 64/2008 de convalidación y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Asimismo, conforme a lo establecido en el Decreto 47/2012 de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y estarán exentos de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas el nivel de euskera.

6. Tasas: Haber abonado dentro del plazo de presentación de las solicitudes la tasa del derecho a examen establecido por la ordenanza fiscal para el año 2019 aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Bermeo.

7. No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto. Los servicios médicos municipales acreditarán que se cumpla este requisito, previos los reconocimientos que estimen convenientes.

8. No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las administraciones públicas ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos y cargos públicos.

**Cuarto.—*Sistema de selección***

Concurso-oposición.

**Quinto.—*Plazo de presentación de solicitudes***

El plazo de presentación de las solicitudes para participar en el proceso selectivo será de 10 días laborables, contados a partir de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Para participar en esta convocatoria, las personas interesadas deberán presentar las instancias en el modelo normalizado del impreso de solicitud en el registro general del Ayuntamiento de Bermeo (oficina Berh@z) o utilizando alguna de las vías reglamentadas por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 reguladora del Procedimiento General de las Administraciones Públicas.

Las personas candidatas deberán rellenar todos los apartados del impreso de solicitud y deberán manifestar que cumplen todos los requisitos de participación.

Junto con el impreso de solicitud, deberán presentarse los siguientes documentos:

cve: BOB-2019a184-(II-3579)

— Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.
— Fotocopia del título requerido para participar en la convocatoria.
— Certificado del perfil lingüístico requerido.
— Relación de los méritos que se presentan para el proceso de selección (las personas candidatas que hayan aprobado la fase de oposición tendrán un plazo de cinco (5) días válidos para la presentación de los comprobantes de los méritos mencionados en el impreso de solicitud).

No podrá valorarse ningún mérito que se haya declarado en el plazo de presentación de instancias y no se haya justificado, ni aquellos otros que declarados dentro de dicho plazo, no hayan sido justificados posteriormente. Tampoco podrán valorarse los méritos que no se hayan solicitado en el proceso selectivo correspondiente.

**Sexto.—*Admisión de candidato/as***

Una vez finalizado el plazo de presentación de las solicitudes, el alcalde-presidente o el órgano competente aprobará en el plazo de un mes las listas provisionales de lo/las candidato/as admitido/as y no admitido/as. Dicha resolución se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web. Lo/as candidato/as excluido/as tendrán un plazo de 10 días para presentar las reclamaciones que estimen oportunas contra dicha resolución, o para presentar los documentos solicitados o corregir los defectos detectados.

**Séptimo.—*Tribunal calificador***

El tribunal calificador del proceso selectivo se constituirá de acuerdo a lo establecido en los artículos de las siguientes disposiciones: Artículo 60 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, artículo 4 del Real Decreto 896/91 del 7 de junio, articulo 31 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, artículo 127.1.h de la Ley 7/1985, de 2 de abril, en la redacción dada por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre y articulo 20.4.b de la Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres.

El tribunal estará conformado por el/la presidente/a, secretario/a y número de miembros establecido en la convocatoria, cinco como mínimo.

Quienes conformen el tribunal serán sobre todo, técnicos y todo/as lo/as que tengan derecho a voto deberán poseer título o nivel académico similar o superior al exigido para participar en la convocatoria, y la mitad de lo/as miembros de cada tribunal, como mínimo, deberán tener titulación o especialización en el mismo campo de conocimientos de los de las pruebas selectivas.

Si ocurriese alguna situación que no esté contemplada en estas bases, el tribunal tomará las decisiones necesarias para el buen desarrollo del proceso selectivo y el cumplimiento de los deberes correspondientes, y resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de estas bases, entre otros, el orden de los ejercicios que se prevén en la fase de oposición. Contra las resoluciones del Tribunal podrá interponerse recurso de alzada ante el Alcalde- Presidente; el plazo para ello se establecerá en la misma resolución y deberá contarse a partir del día siguiente a su publicación en el tablón de anuncios.

Asimismo, serán de aplicación las bases generales que regulan las convocatorias para cubrir las plazas del Ayuntamiento de Bermeo.

**Octavo.—*Proceso selectivo***

*Fase de oposición*

La primera fase del proceso selectivo será la de oposición.

Primer ejercicio (obligatorio y excluyente): En el plazo indicado por el tribunal deberán responderse a 30 preguntas de múltiples opciones sobre los temas que figuran en el anexo I.

cve: BOB-2019a184-(II-3579)

Este ejercicio se valorará de 0 a 30 puntos. El tribunal, antes de conocer los nombres de las personas que realizarán el ejercicio, especificará la puntuación mínima para aprobar la prueba. La persona candidata que no logre dicha puntuación quedará excluida.

Segundo ejercicio (obligatorio y excluyente): Ejercicio práctico. Las personas candidatas deberán realizar uno o más ejercicios prácticos relacionados con las funciones del puesto de trabajo, correspondientes a los temas especificados en el anexo I.

Este ejercicio se valorará de 0 a 50 puntos. Quienes no obtengan un mínimo de 25 puntos quedarán excluido/as del proceso.

*Fase de concurso*

Las personas candidatas que hayan aprobado la fase de oposición tendrán un plazo de cinco (5) días válidos para la presentación de los comprobantes de los méritos mencionados en el impreso de solicitud. Si no se presentase la documentación solicitada en dicho plazo de cinco días, se entenderá que la persona candidata renuncia.

Se examinarán y valorarán los méritos certificados por las personas candidatas, de acuerdo a lo establecido en el siguiente baremo:

1. Experiencia profesional:

— Servicios prestados en la administración pública en el puesto de oficial (grupo C2). 0,5 puntos mensuales, (en jornada laboral del 100%, el resto se valorará proporcionalmente), 18 puntos máximo. Las fracciones mensuales no se valorarán.

— Servicios prestados en la empresa privada en el puesto de oficial (grupo de cotización 8) (en jornada laboral del 100%, el resto se valorará proporcionalmente): 0,25 puntos por mes, máximo 9 puntos. Las fracciones mensuales no se valorarán.

En esta fase de concurso, podrán obtenerse un máximo de 27 puntos.

En la fase de concurso, lo/as aspirantes deberán presentar junto con la solicitud la relación de los méritos y la correspondiente documentación acreditativa, en el plazo y modo en que se indica en las bases. No se podrán dar por válidas de ninguna manera los meritos que se hayan indicado dentro del plazo de presentación de las solicitudes pero que no se hayan acreditado, ni las que se hayan indicado dentro del plazo pero se hayan acreditado fuera de él.

**Noveno.—*Publicaciones***

El lugar, fecha y hora para el primer ejercicio de la fase de oposición, y la resolución que aprueba la relación definitiva de las personas admitidas y excluidas se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia», en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web http://www.bermeo.eus. Esto es así según el artículo 45 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre que regula el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas.

El tribunal publicará los anuncios del resto de la fase de oposición en el tablón de anuncios del ayuntamiento, en la página web http://www.bermeo.eus y si fuese necesario en los locales donde se han realizado las pruebas e informará a las personas candidatas. Los anuncios se publicarán como mínimo 48 horas antes de la realización de las pruebas.

**Décimo.—*Relación de personas aprobadas***

Concluida la calificación de los ejercicios y la valoración de la experiencia profesional, el tribunal establecerá el orden de clasificación definitivo por orden de puntuación sumando las puntuaciones obtenidas en el proceso selectivo, y remitirá dicha relación al/a la presidente/a de la corporación para que apruebe la bolsa de trabajo y formule la propuesta de nombramiento, en calidad de personal funcionario interino. Para ello, deberán estar acreditados previamente los requisitos exigidos para participar en la convocatoria.

cve: BOB-2019a184-(II-3579)

El orden de clasificación definitiva vendrá determinado por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de oposición y en la fase de concurso, y estarán ordenadas de mayor a menor. De esta forma los llamadas para trabajar comenzarán siempre por las personas que, habiendo aprobado todos los ejercicios, tengan la mayor puntuación, incluyendo todas las fases del procedimiento.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 27.2 de la Ley del Parlamento Vasco 6/1989 de la Función Pública Vasca y artículo 20.4.a) de la Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de Febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, a igualdad de capacitación, se dará prioridad a las mujeres cuando menos del 40% de todas las personas presentadas sean mujeres o a los hombres cuando menos del 40% de todas las personas presentadas sean hombres, salvo que concurran en otros candidatos motivos, que no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

Si a pesar de todo persiste el empate, el orden se establecerá atendiendo a los siguientes criterios:

1. Quien hubiera obtenido mayor puntuación en el ejercicio práctico.
2. Quien hubiera obtenido mayor puntuación en la fase de oposición.
3. Por último, quien haya logrado la puntuación más alta en los meritos especificados en las bases-normas particulares, según el orden indicado en los mismos.
4. Conforme al artículo 20.4.a) de la Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, a igualdad de capacitación, se dará prioridad a las mujeres cuando menos del 40% de todas las personas presentadas sean mujeres y a los hombres cuando menos del 40% de todas las personas presentadas sean hombres ,salvo que concurran en otros candidatos motivos, que no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

En Bermeo, a 18 de septiembre del 2019.—El Alcalde, Aritz Abaroa Cantuariense

cve: BOB-2019a184-(II-3579)

ANEXO I

**Temas generales**

1. El municipio: Competencias. Organización municipal: Bases fundamentales. Órganos básicos: Alcalde/sa, tenientes de alcalde/sa, Pleno y Comisión de gobierno. Órganos complementarios. Competencias. Estatuto de miembros de la corporación.

2. Función Pública Local y su ordenamiento. Derechos y obligaciones de lo/as empleado/as público/as. Adquisición y pérdida de relación de servicio. Estados administrativos. Responsabilidades.

**Temas específicos**

3. Obras de albañilería.

4. Fontanería: conceptos generales. Breve referencia a la instalación de aguas en edificios. Herramientas y útiles. Su mantenimiento. Averías y reparaciones.

5. Conceptos básicos sobre electricidad. Instalaciones eléctricas. Transporte de energía eléctrica. Conductores y aislantes. Canalizaciones. Herramientas y útiles empleados en trabajos de electricidad. Tipos de averías y sus reparaciones. Instalaciones de alumbrado. Instalaciones de enlace. Instalaciones interiores.

6. Carpintería: Conceptos generales. Útiles y herramientas básicas de carpintería. Técnicas básicas de carpinteria, Tipos de madera. Trabajos de mantenimiento y reparaciones más frecuentes. Construcción y conservación de muebles de madera.

7. La cerrajería: consideraciones generales. Tareas básicas de cerrajería. Herramientas y útiles de trabajo. Reparaciones y mantenimiento.

8. Conceptos generales sobre pintura de edificios y locales. Herramientas para aplicar y quitar pinturas: limpieza y conservación. Errores y reparaciones más habituales.

9. La jardinería: conceptos generales y funciones del/ de la jardinero/a. Las plantas. Herramientas útiles para el trabajo de jardinería. Principales técnicas en el cuidado de las plantas. Enfermedades de las plantas.

**Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención («BOE», número 27 de 31 de enero de 1997)**

10. Integración de la actividad preventiva (artículo 1).

**Ley 31/1995 de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, modificada por la Ley 54/2003, de 12 de diciembre**

11. Derecho a la protección frente a los riesgos laborales (artículo 14).

12. Principios de la acción preventiva. (artículo 15).

13. Riesgo grave e inminente (artículo 21).

14. Obligaciones de los trabajadores en materia de prevención de riesgos. (artículo 29).

15. Presencia de los recursos preventivos (artículo 32 bis).

cve: BOB-2019a184-(II-3579)